

# ZER BERRI



Aizarnazabalen

EKAINA 2026



[www.aizarnazabal.eus](http://www.aizarnazabal.eus)

<https://t.me/zerberriaizarnazabalen>

“

## GAIAK

1. ODOL EMALEAK
2. XIII. JAN SANO ETA BIZI POZIK AZOKA
3. ADINDUEI OMENALDIA
4. SAN KRISTOBAL TXIKI EGUNA
5. SAN JUAN SUA
6. MEMORIAL GERVAIS ETA JOXE LARRARTE ERLOJUPEKOA.
7. ALAITSU MUSIKA ETA DANTZA ESKOLAN IZENA EMATEA ZABALIK
8. SAN KRISTOBALAK. AUZO AFARIRAKO TXARTELAK SALGAI

Jan Sano Bizi Pozik  
Denok azokara  
Ondoren hamairuan  
Gazte eguna da  
Hemeretzi ta gero  
Ez goaz eskolara  
San Juan suan gauean  
Txostenak sutara  
Ekainakin batera  
Gozatu udara

Ekainak 3 ODOL ATERAKETA

Ekainak 3

ODOL ATERAKETA



Ekainaren 3an, 16:30etatik 20:30arte, urteko bigarren odol-ateratzea egingo da herriko eskolan.

Hitzordua telefonoz edo online hartu behar da.

- Ekainak 1 eta 2: [www.gotatanta.eus](http://www.gotatanta.eus) webgunean.
- Ekainak 3: 943 31 70 91 edo/eta 943 00 78 84 zenbakietara deituz.

## **Ekainak 6 XIII. JAN SANO ETA BIZI POZIK AZOKA**

*XIII. Jan sano eta bizi pozik azoka* ospatuko da ekainaren 6an.. Goizeko 10:00etan hasi eta 14:00ak arte denetarik izango da; bertako produktuak, artisau produktuak, baserriko tresnak, animaliak, umeen txokoa, poniak, etabar

Jan eta edatekorik ez da faltako, bildotsa pintxotan dastatzeko aukera eta Txotx!!!. Egitaraua atzeko orrian daukazue.

## **Ekainak 7 ADINDUEI OMENALDIA**

Ekainaren 7an adinduen eguna ospatuko da. Omenduak ondorengoak izango dira:

- ❖ M<sup>a</sup> FRANCISCA URANGA ASTIGARRAGA
- ❖ JOXE ETXABE ZULAIKA

Egitaraua:

- 12:30etan MEZA
- 14:00etan BAZKARIA MUNIOSORO ERRETEGIAN.

**Oharra:** Autobusa jarriko bazkaltzera joateko eta itzultzeko.

## **Ekainak 9 GERVAIS ETA JOXE LARRARTE MEMORIALA**

Ekainaren 9an, Gervais eta Joxe Larrarte Memoriala ospatuko da. Erlojupeko txindularitza frogaz izaten da. Aurtengoan bi erlojupeko frogak osatzen duten memoriala.

- Gipuzkoako erlojupekoa txapelketa.
- Euskadiko erlojupekoa txapelketa.

Jakinarazi txirridulari frogak irauten duen bitartean errepide nagusia itxita egongo dela. Xehetasun guztiak datozen egunetan jakinaraziko dira.

## **Ekainak 11 SAN KRISTOBAL TXIKI EGUNA**

Ekainak 11, osteguna, San Kristobal txiki eguna da. Arratsaldeko 17:30etan meza ospatuko da ermittan..Ondoren gerturatutakoentzat meriendatxo bat izango da.

## **Ekainak 13 GAZTE EGUNA**

**Ekainaren 13an Adiskide Gaztetxeak Gazte eguna antolatu du. Oraindik egitaraua argitaratu ez bada ere datozen egunetan sare sozialak, kartelak, Telegram, eta hainbat komunikabideen bidez zabalduko da.**

## **Ekainak 23 SAN JUAN BEZPERA- SAN JUAN SUA**



Ekainak 23an, San Juan bezpera, gaueko 22:00etan San Juan sua piztuko da udako solztizioari hasiera emateko.

Sua piztu ondoren Alaitsu musika eta dantza eskolak ohiko dantza emanaldia eskeiniko digute. Bide batez dantza ikasturteari amaiera emango diote.

## ALAITSU MUSIKA ETA DANTZA ESKOLAREN HAINBAT BERRI

- Alaitsu musika eta dantza eskolak **aurre matrikula** ireki du. Izen ematea Telegram bidez zabalduko da eta Ekainak 15-erako egin beharko da.
- Ekainak 12an musika-eskolako kurtso **amaierako jaialdia** eskeiniko da 18:30tan. Eguraldi ona bada plaza zaharrean, eguraldi txarra balitz eskola azpian.
- Ekainak 15, 16 eta 17 musika eskolak **ate irekiak** antolatzeko asmoa du. Interesik denak musika eskolako Odil-ekin harremanetan jarri.
- Ekainak 23-an kurtsoari amaiera emateko **sua piztu ondoren dantza emanaldi bat** eskeiniko digute.

## SANKRISTOBALAK. AUZO AFARIRAKO TXARTELAK SALGAI

Sankristobaletako auzo afariako txartelak salgai jarriko dira.

- **Lekua:** Uztarri
- **Epea:** ekainaren 26etik uztailaren 5era.
- **Prezioa:**
  - Umeen menua: 15€
  - Helduen menua: 28€

### **Menuak (Helduak)**

Iberikoak  
Ensalada Mixta  
Hegaluzea parrillan pistoarekin  
Baserriko oilaskoa parrillan  
Limoizko sorbetea kabarekin  
Ogia, kafea eta edariak

### **Menua( Haurrak) (14 urte barne)**

Iberikoak  
Urdaiazpiko kroketak  
Hamburgesa eta saltxita parrillan patatekin  
Izozkia  
Ogia eta edariak

## KOMUN PUBLIKOA ETA IGOGAILUA

Dagoeneko komun publikoa erabilgarri dago eta igogailua ekainaren lehen astean martxan egongo da.



